



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONBOIA

2023-03-15

Nori zuzenduak?

Graduko Tronboi interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko martxoaren 8an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Tronboi interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

REAL, Juan

Vicente Boix, José Manuel Sánchez eta Arkaitz Mendoza irakasleek ere parte hartuko dute

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30 Beroketa eta teknika eskola kolektiboa

11:30 Musikeneko ikasleen entzunaldi-eskola Arkaitz Mendoza eta José Manuel Sánchez pianistekin

15:00-18:00 Izena eman duten ikasle aktiboekin eskolak

18:15-19:30 Tronboi taldearekin talde jarduera hala nahi duten ikas aktiboekin

Tronboi jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusion@musikene.net